Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Aloreo

EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA GIPUZKOAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOETAN EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATU ETA INDARTZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO (2024011CO600 ESPEDIENTEA).

1. SARRERA

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoak 6. artikuluan xedatutako funtzioak betetzea, eta hauxe dio tokiko administrazioei dagokionez:

> *h) Sustapen neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko.*

Mandatu hau, are eta gehiago zehazten du *2/2015 Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Foru Arauak* 8. Artikuluan:

> *2.b) Udal mailan sustapen neurriak ezartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko baldintza egokiak sortzeko.*
>
> 3.i) *Gipuzkoako Lurralde Historikoko udaletan berdintasunerako egitura teknikoak sortzen eta indartzen laguntzea.*
>
> *3.j) Gipuzkoako udaletako berdintasun teknikarien sare-lana sortu eta indartzea, udalaz gaindiko beste sareetan egiten den lanari jarraituz.*

Horrez gain, aipatutako Foru Arauak 18.artikuluan, Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako berariazko politiken jarduera esparruak aipatzen direnean, 18.artikuluan, honakoa jasotzen du:

1. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politika publikoak sustatzea, eta horretarako, funtzio hauek bete beharko ditu gutxienez:*
    a. *Udalerriei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako tokiko politikak sortu eta finkatzeko, eta helburu horretarako udal tresna arauemaileak ezartzeko.*
    b. *Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategiakoa babestea.*
    c. *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoak sortzen eta indartzen laguntzea, dagokion toki administrazioko lanpostuen zerrendan ageri diren teknikari espezializatuekin.*
    d. *Udalerri txikiei laguntza ematea emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal politikak garatzeko eta politika horiek udalerriko berezitasunei arreta emateko, bereziki baliabide ekonomikoen eta langile baliabideen egitura baldintzak kontuan hartuz.*

e. *Sareko lankidetza espazioak martxan jarri eta garatzea, bai maila politikoan bai maila teknikoan, era horretan, koordinazioa, trukea eta ikaskuntza sustatzeaz gain, udal eta lurralde mailan lan prozesu kolektiboak abian jartzeko.*

Gauzak horrela, Gipuzkoako udalen aniztasunari egokituko diren programak diseinatzea da Berdintasun Organoaren xedea, betiere, emakume eta gizonen berdintasunerako politikak sustatzeko helburuarekin.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da asistentzia teknikorako zerbitzuak kontratatzea aipatutako funtzioak garatzeko.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da asistentzia teknikorako zerbitzuak kontratatzea:

1. Udalerri txikiei emakume eta gizonen berdintasunerako udal politika planifikatu eta garatzeko laguntza ematea. Zerbitzu honetarako udalerri txikitzat hartuko dira 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak, eta berdintasun teknikaririk ez dutenak.
2. Gipuzkoako udalerrien errealitate anitza kontuan hartuta, Gipuzkoako udalen arteko languneen diseinua, planifikazioa, kudeaketa eta sistematizazioa.

2. ZERBITZUEN KONTRATAZIOA SORTAKA

Kontratua bi lotetan banatuko da.

3. EGIN BEHARREKO LANAK

Helburu horiek lortzeko, proposamenak jarduera hauek jaso beharko ditu, gutxienez, jarraian aipatutako funtzioak betetzeko:

SORTA 1:

Udalerri txikiei, alegia 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei, emakume eta gizonen berdintasunerako udal politika **planifikatu eta garatzeko laguntza** ematea. Zerbitzu honetarako udalerri txikitzat hartuko dira 10.000 biztanle baino gutxiago izateaz gain berdintasun teknikaririk ez duten udalerriak. Laguntza hori honako eginkizun hauen bidez garatuko da, eta eginkizun horiek, era berean, hainbat zeregin bilduko dituzte:

1. Udaleko ordezkari politikoei eta teknikariei emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal politika diseinatzeko **oinarrizko prestakuntza** eskaintzea. Prestakuntza hori banaka eta/edo taldeka eman ahal izango da, hainbat udalen artean:
   - Prestakuntza-saioak diseinatu, garatu, sistematizatu eta ebaluatzea.
   - Prestakuntza udaletako teknikarien eta politikarien beharretara egokitzen dela bermatzea, eta gaiaren espezializazio-mailak hala eskatzen duen kasuetan, gaian adituak diren langileak kontratatzea, aurrez Berdintasunerako Organoarekin kontrastatuta.

- Formazioari dagokionez, Udalen egoeraren jarraipena egin ahal izateko tarteko txostenak egitea.

2. Udalerri txikietako ordezkari politiko eta teknikoekin osatutako **lan egiteko espazio kolektiboa** mantentzea eta sendotzea, aurrerapenak, zailtasunak, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeko, eta ezagutza kolektiboa eta elkarrekiko laguntza eraikitzeko.
   - Fase bakoitzerako lan plan espezifiko bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, lortu beharreko helburu operatiboak, edukia eta helburu horiek lortzeko garatu beharreko lan metodologia eta dagokion kronograma zehaztuz.
   - Saio horiek egiteko behar den dokumentazioa prestatzea: programa, lan tresnak, dokumentu lagungarriak, aktak...
   - Espazio kolektiboan egindako lana sistematizatzea, jarraipen egokia egiteko, ikaskuntzak ateratzeko eta hobetzeko alderdiak identifikatzeko, bai edukiei dagokienez, baita prozesuari dagokionez ere.
   - Lan prozesuetatik ikaspenak ateratzea, era sistematiko batean jasotzea eta hurrengo lan faseari begira hobetzeko alderdi praktikoak identifikatzea.
   - Orientabide praktikoak formatu egokian jasotzea, prozesuan parte hartu duten udalentzat nahiz parte hartu ez dutenentzat lanerako tresna izan dadin.

3. Udalerri txikiei emakume eta gizonen berdintasunerako **udal planifikazioa diseinatzen laguntzea**, horretarako beharrezkoa den aholkularitza eskainiz.
   - Udal planifikazioen diseinu, jarraipen eta sistematizaziorako lan tresnak, fitxak eta abar diseinatzea.
   - Udal planifikazioen diseinu, garapen eta ebaluazioan udal bakoitzari aholkularitza indibidualizatua eskaintzea.
   - Berdintasun Organoari helaraztea formatu errazean udalez udal burututako planifikazioak, lurralde mailan garatu beharreko lanaren berri modu argi eta ordenatuan emango duena.
   - Berdintasunerako Organoari plangintza horien garapenaren emaitza era ordenatuan helaraztea, bai eta hobetzeko orientabide eta gomendio zehatzak ere.

4. Udalerriei **aholkularitza** eskaintzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-plangintzan barneratu dituzten **lan-prozesuak eta ekintzak** abian jartzeko, eta, beharrezkoa den kasuetan, enpresak edo adituak kontratatzea, Berdintasunerako Organoarekin adostutako prozeduraren bidez: harremanak, edukien kudeaketa, kudeaketa logistikoa eta kostuen ordainketa. 1. lotea kudeatzeko aurreikusitako aurrekontutik 60.000 euro inguru bideratuko dira urtero ekintza horietara.

5. **1.000 biztanle** baino gutxiagoko udalerrientzat emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko baliagarria izango den urteroko **lan proposamena diseinatzea**:

   - Lan-proposamen zehatza egitea, parte hartzen duten udalerrien egoera espezifikoa eta berdintasunerako udal-politika garatzeko dituzten baldintza bereziak kontuan hartuta.
   - Berdintasun Organoarekin 1.000 biztanletik beherako udalerrietarako lan-proposamena kontrastatu eta adostea.

- 1.000 biztanletik beherako udalerrietarako adostutako lan proposamena garatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Udal horiekin egindako lanari buruzko informazioa era sistematikoan biltzea, Berdintasunerako Organoak jarraipen egokia egin diezaion, bai udalerri bakoitzaren ikuspegitik, baita lurralde-ikuspegi batetik ere.
- Lan proposamen zehatzaren baitan garatutako lana, ateratako ondorioak, lortutako ikaspenak eta hobekuntza proposamenak urteko memoria batean jasotzea.

6. Udalerri txikiekin **etengabeko harremana** izatea eta aholkularitza orokorra eskaintzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-politikarekin lotutako gaietan.
7. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalerri txikien arteko **interlokuzioa** erraztea, udal bakoitzak laguntza teknikorako erreferentziazko teknikari bat izango duela bermatuz.

SORTA 2:

Gipuzkoako udalerrien errealitate anitza kontuan hartuta, **Gipuzkoako udalen arteko languneen diseinua, planifikazioa, kudeaketa eta sistematizazioa.** Langune hauetan ildo ezberdinen inguruko lan prozesuak garatuko dira, trebakuntza, hausnarketa partekatua eta ekintza praktikoaren bidez, eta Gipuzkoako udaletako berdintasun-politiketan aurrera egiteko estrategia eta lan-tresna komunak sortzea helburu izango dute.

Hauek dira Berdintasun Organoak, ondorengo 2 urteetarako aurreikusten dituen languneak:

- Emakume eta gizonen berdintasun teknikaria duten udalentzako, berdintasun teknikarien langunea.
- Gipuzkoako udal gazteria eta berdintasun teknikarien arteko langunea.
- Emakumeen Etxea duten udalentzako, Emakumeen Etxeetako dinamizatzaile eta berdintasun teknikarien arteko langunea.

Hala badagokio, lan-espazio berriak sortzea bultzatu ahal izango da, betiere horretarako beharrezkoak diren baldintzak badaude. Nolanahi ere, lan-eremuetan parte hartzeak udalei eragingo dien ahalegina eta dedikazio-maila neurtuko dira, berdintasunerako udal politika garatzeko oztopo bihurtu ez daitezen.

Laguntza hori honako eginkizun hauen bidez garatuko da, eta eginkizun horiek, era berean, hainbat zeregin bilduko dituzte:

1. Tokiko teknikariekin batera **lan egiteko espazioak mantentzea eta finkatzea**, aurrerapenak, zailtasunak, esperientziak eta ikaskuntzak partekatzeko eta ezagutza kolektiboa, elkarrekiko laguntza, estrategiak eta lurraldearentzako orientabide komunak eraikitzeko.

   a. Espazio bakoitzerako lan-plan zehatz bat diseinatzea, lortu beharreko helburu operatiboak, horiek lortzeko garatu beharreko edukia eta lan-metodologia eta dagokion kronograma zehaztuz, betiere espazio guztien ikuspegi bateratua kontuan hartuta.

   b. Lan gune bakoitzari dagokion lan-saio bakoitza behar bezala diseinatzea eta dinamizatzea, emaitza zehatzetara eta ekintzara bideratuz.

   c. Saio horien garapen eta jarraipen egokia egiteko behar den dokumentazioa prestatzea: gai-zerrendak, lanerako materialak, dokumentu lagungarriak, aktak...

d. Ian guneetan egindako lana sistematizatzea, jarraipen egokia egiteko, ikaskuntzak eta ondorioak ateratzeko, eta hobetzeko alderdiak identifikatzeko.

2. **Aholkularitza indibidualizatua** eskaintzea, berdintasun-teknikari bakoitzaren beharrei erantzungo diena, udalaren testuinguru espezifikoaren baitan eta parte hartzen duen langune kolektiboaren markoan:

a. Laguntza eta jarraipen-ibilbide berezituak diseinatzea eta garatzea berdintasun-teknikari bakoitzaren egoera espezifikotik abiatuta, ezagutza eta esperientzia kolektiboa eraikitzeko ekintza eta ekarpena bultzatze aldera.

b. Berdintasuneko teknikariekin harreman egokia izatea, aholkularitza zehatza eskainiz, languneetako talde lana indartzeko helburuarekin.

c. Berdintasun-teknikariei laguntza eskaintzea, Berdintasunerako Organoak bultzatutako prozesuetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

d. Udalei eskainitako laguntza eta aholkularitza lana sistematizatzea, jarraipen egokia egiteko, ikaskuntzak ateratzeko eta hobekuntzak identifikatzeko, betiere taldeko ikaspen eta lurralde ikuspegitik.

FUNTZIO OROKORRAK:

Adierazitako eginkizun eta zereginez gain, izaera orokorreko beste eginkizun hauek ere egingo dira:

1. Lote bakoitzaren funtzioetatik eratorritako **lan-prozesuak diseinatzea, planifikatzea, dinamizatzea, sistematizatzea eta ebaluatzea.**
2. Gai-zerrendak egitea, aurkezpenak eta lan-bilerak behar bezala egiteko behar den **dokumentazio osagarri guztia prestatzea**, eta aktak idaztea, bai udaletako teknikariekin egindako bilkuretan, bai Berdintasunerako Organoarekin egindakoetan, eta baita hala eskatutako kasuetan beste eragileekin egindakoetan ere.
3. **Urteko memoria** bat egitea, egindako lana, ondorioak, ateratako ikaspenak eta hobekuntza-proposamen jasoko dituena.
4. Berdintasunerako Organoak egindako lana **partekatzeko eta zabaltzeko** behar den dokumentazioa prestatzea ahalik eta era errazenean irakurri eta ulertzeko moduan.
5. **Aholku ematea Berdintasunerako Organoari**, aurrera begira ildo estrategikoa garatzen lagunduko duen ibilbide-orri bat diseina dezan, garatutako lan-prozesuetatik eratorritako ondorioetatik eta ikaskuntzetatik abiatuta.
6. Lurraldeko berdintasunerako toki-politikak bultzatzeko estrategiaren **jarraipena eta sistematizazioa** egitea, eta berdintasunerako toki-politiken egoerari buruzko beharrezko eguneratzeak egitea, ondorioak ateratzeko eta hobetu daitezkeen elementuak eta ekiteko alderdi berriak identifikatzeko.
7. Lan-prozesuak koordinatzea eta adostea, eta lanaren **jarraipen bateratua eta iraunkorra** egitea Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoarekin.
8. Kudeatutako zerbitzuari buruzko informazioa partekatzea eta Gipuzkoako udalerriei eskaintzen zaizkien zerbitzuak artikulatzen laguntzea, horretarako behar diren bilerak eginez, Berdintasunerako Organoak eskatuta. Bilera horien deialdiak eta aktak egitea bigarren lotea kudeatzen duen laguntza teknikoaren ardura izango da.

9. Berdintasunerako Organoak eskatutako dokumentazioa eta/edo aurkezpenak prestatzea, **lan-prozesuari buruzko informazioa** eman ahal izateko, Foru Aldundiaren barruan zein kanpoan.
10. Udal guztietako ordezkari politikoekin osatutako guneak eta/edo topaketak diseinatu eta kudeatzea, Aldundiaren eta udalen arteko **koordinazio eta lankidetza tekniko-politikorako**.
11. **Amaierako txostena** egitea bi hizkuntza ofizialetan, esperientzia (planteamendua, edukia, metodologia, parte-hartzaileak, egindako lana, emaitzak, ondorioak, ateratako ikaspenak eta hobetzeko proposamenak) eta aurreko funtzio bakoitzean egindako sistematizazioa jasoko dituena.
12. **Amaierako txosten exekutibo bat** egitea, dibulgaziozkoa, egindako lana modu orokorragoan ezagutarazteko.

Edurne Aranbarri Andueza

Berdintasun teknikaria

Donostian, 2024ko uztailaren 17an

Gipuzkoako
Foru Aldundia

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS PARA EL IMPULSO Y FORTALECIMIENTO DE LAS POLÍTICAS PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN LAS ADMINISTRACIONES LOCALES DE GIPUZKOA (EXPEDIENTE 2024011CO600).

1. INTRODUCCIÓN

El artículo 6 del Texto Refundido de la *Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres* aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, establece las funciones que corresponden a las administraciones forales en materia de igualdad, entre las cuáles se encuentra el apoyo de las entidades locales:

> *h) Establecimiento de medidas de fomento a fin de dotar a los ayuntamientos y demás entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.*

El artículo 8 de la Norma Foral 2/2015, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, detalla más si cabe este mandato.

> *2.b) El establecimiento de medidas de fomento que creen las condiciones adecuadas para el desarrollo de las políticas para la igualdad de mujeres y hombres a nivel municipal.*
>
> *3.i) Apoyar la creación y refuerzo de estructuras técnicas para la igualdad en los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*
>
> *3.j} Generar y fortalecer el trabajo en red del personal técnico de los municipios guipuzcoanos, en coherencia con el trabajo desarrollado en otras redes de trabajo supramunicipal.*

Asimismo, la citada Norma Foral, en su artículo 18, recoge lo siguiente cuando se refiere a las áreas de actuación de las políticas específicas para la igualdad de mujeres y hombres en la Diputación Foral de Gipuzkoa:

1. *El fomento de las políticas públicas locales para la igualdad de mujeres y hombres, que comprende el ejercicio, al menos, de las siguientes funciones:*

    a) *Apoyo a los municipios para la generación y consolidación de las políticas locales y el establecimiento de instrumentos normativos municipales para la igualdad de mujeres y hombres.*
    h) *Apoyo a proyectos estratégicos para la igualdad de mujeres y hombres en los municipios guipuzcoanos.*
    c) *Apoyo a la creación y fortalecimiento de órganos para la igualdad de mujeres y hombres con personal técnico especializado contemplado en la relación de puestos de trabajo de la correspondiente administración local.*
    d) *Apoyo a los municipios de menor tamaño para el desarrollo de politicas municipales para la igualdad de mujeres y hombres que atiendan a sus especificidades, especialmente las referidas a sus condiciones estructurales de recursos económicos y de personal.*

e) *Puesta en marcha y desarrollo de espacios de trabajo en red, a nivel político y técnico, que permitan la coordinación, el intercambio, el aprendizaje y la puesta en marcha de procesos de trabajo colectivo a nivel municipal y territorial.*

En coherencia con estos mandatos, el Órgano para la Igualdad asume el diseño de programas que se adapten a la diversidad de los ayuntamientos guipuzcoanos, siempre con el objetivo de impulsar las políticas para la igualdad de mujeres y hombres.

Por todo ello, resulta necesaria la contratación de los servicios de asistencia técnica para el desarrollo de dichas funciones.

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la contratación de servicios de asistencia técnica en los siguientes ámbitos:

- Apoyo a los municipios pequeños en la planificación y el desarrollo de su política local para la igualdad de mujeres y hombres. En el marco de este contrato tendrán la consideración de municipios pequeños los que tengan una población inferior a 10.000 habitantes, y no cuenten con personal técnico de igualdad.
- Diseño, planificación, dinamización, gestión y sistematización de espacios de trabajo con los ayuntamientos guipuzcoanos, teniendo en cuenta la realidad diversa de los mismos.

2. CONTRATACIÓN DEL SERVICIO POR LOTES

El contrato se dividirá en dos lotes.

3. TRABAJOS A REALIZAR

Para lograr los objetivos mencionados, la propuesta deberá recoger, como mínimo, estas actividades para el cumplimiento de las siguientes funciones.

LOTE 1:

Apoyo a los municipios pequeños en la **planificación y el desarrollo de su política local** para la igualdad de mujeres y hombres. Tendrán la consideración de municipios pequeños los que tengan una población inferior a 10.000 habitantes, y no cuenten con personal técnico de igualdad. Dicho apoyo se concretará a través de las siguientes funciones que, a su vez, engloban diversas tareas:

1. Ofrecer una **formación básica** en el diseño de políticas de igualdad de mujeres y hombres al personal político y técnico municipal. Esta formación se podrá impartir de forma individual y/o grupal, entre diferentes ayuntamientos:
   - Diseñar, implementar, sistematizar y evaluar las sesiones formativas.
   - Garantizar que la formación se adecue a las necesidades del personal técnico y político de los ayuntamientos, y en los casos en los que el grado de especialización de la materia

así lo requiera, contratar a personal experto en la materia, previo contraste con el Órgano para la Igualdad.

- Elaboración de informes intermedios que permitan el seguimiento del estado de situación de los ayuntamientos respecto a la formación.

2. Consolidar y reforzar el **espacio de trabajo colectivo** formado por representantes políticos y técnicos de municipios pequeños para compartir experiencias, avances, dificultades y aprendizajes, y construir conocimiento colectivo y apoyo mutuo.

   - Diseñar, elaborar y evaluar un plan de trabajo específico para cada fase, identificando los objetivos operativos a alcanzar, el contenido y la metodología de trabajo a desarrollar de cara a alcanzar dichos objetivos, incluyendo su cronograma correspondiente.

   - Preparación de la documentación necesaria para la realización de dichas sesiones: programa, herramientas de trabajo, documentos de apoyo, actas...

   - Sistematizar el trabajo realizado en el espacio común para realizar un seguimiento adecuado, extraer aprendizajes e identificar aspectos de mejora, tanto a nivel de contenidos como de proceso.

   - Extraer aprendizajes de los procesos de trabajo, recogerlos de forma sistemática e identificar aspectos prácticos de mejora, de cara a la siguiente fase de trabajo.

   - Recoger orientaciones prácticas en el formato adecuado de manera que sirva como herramienta de trabajo tanto a los ayuntamientos que han participado en el proceso, como a los que no lo han hecho.

3. Apoyar a los municipios pequeños en la elaboración de su **planificacion municipal** para la igualdad de mujeres y hombres, prestando el acompañamiento necesario para ello.

   - Asesorar individualmente a cada ayuntamiento en el diseño, desarrollo, seguimiento y evaluación de su planificación.

   - Diseñar herramientas de trabajo, fichas, y otros instrumentos para la elaboración, seguimiento y sistematización de las planificaciones locales.

   - Trasladar al Órgano de Igualdad las planificaciones llevadas a cabo en cada ayuntamiento en un formato sencillo, que dé cuenta de modo claro y ordenado del trabajo a desarrollar a nivel territorial.

   - Trasladar al Órgano para la Igualdad el resultado ordenado de la implementación de dichas planificaciones, así como las orientaciones y recomendaciones concretas para la mejora.

4. Asesorar a los ayuntamientos en la **puesta en marcha de procesos y acciones** de trabajo enmarcadas en su planificación municipal para la igualdad de mujeres y hombres, y en los casos en los que sea necesario, realizar la contratación de empresas o personas expertas para su realización, mediante el procedimiento acordado con el Organo para la Igualdad: realización de contactos, gestión de contenidos, gestiones logísticas y pago de costes. Del

presupuesto previsto para la gestión del Lote 1 se destinarán anualmente alrededor de 60.000 euros a estas acciones.

5. Diseñar una propuesta de trabajo anual que sirva para promover la igualdad de mujeres y hombres a los ayuntamientos de **menos de 1.000 habitantes**.

   - Elaborar la propuesta concreta de trabajo, que tenga en cuenta la situación específica de los municipios participantes y sus particulares condiciones para el desarrollo de la política municipal para la igualdad.
   - Contrastar ya acordar la propuesta de trabajo con el Órgano de Igualdad para los municipios de menos de 1.000 habitantes.
   - Implementar, realizar el seguimiento y evaluar la propuesta de trabajo acordada para los municipios de menos de 1.000 habitantes.
   - Recoger de forma sistemática la información relativa al trabajo con estos ayuntamientos para el seguimiento adecuado por parte del Órgano para la Igualdad, tanto desde la perspectiva de cada municipio como desde una mirada territorial.
   - Recoger en una memoria anual el trabajo realizado, las conclusiones, los aprendizajes obtenidos y las propuestas de mejora que se deriven.

6. Mantener **una relación permanente** con los municipios pequeños y ofrecer asesoramiento general en temas relacionados con la política municipal para la igualdad de mujeres y hombres.
7. Facilitar **la interlocución** entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los municipios pequeños, garantizando que cada ayuntamiento cuente con una persona técnica de referencia de la asistencia técnica.

LOTE 2:

Diseño, planificación, dinamización, gestión y sistematización de **espacios de trabajo con los ayuntamientos** guipuzcoanos, teniendo en cuenta la realidad diversa de los mismos. En estos espacios se desarrollarán procesos de trabajo en torno a diferentes líneas que, mediante la formación, la reflexión compartida y la acción práctica, buscarán como resultado la generación de estrategias y herramientas de trabajo comunes para avanzar en las políticas para la igualdad municipales en Gipuzkoa.

Estos son los espacios de trabajo previstos por el Órgano de Igualdad para los siguientes dos años:

- Espacio de trabajo con personal técnico de igualdad de los ayuntamientos que cuentan con este perfil en su plantilla.
- Espacio de trabajo con personal técnico local de juventud y de igualdad.
- Espacio de trabajo con dinamizadoras y personal técnico de igualdad de los ayuntamientos que disponen de Casas de las Mujeres.

Se podrá impulsar en su caso, la creación de nuevos espacios de trabajo siempre y cuando existan las condiciones necesarias para ello. En todo caso, se medirá el esfuerzo y el grado de dedicación que la participación en los espacios de trabajo supone para los ayuntamientos, de forma que no se conviertan en obstáculo para el desarrollo de su política local para la igualdad.

La dinamización y gestión de los espacios de trabajo mencionados se concretará a través de las siguientes funciones que, a su vez, engloban diversas tareas:

1. **Mantener y consolidar los espacios de trabajo** conjunto con el personal técnico local, al objeto de compartir avances, dificultades, experiencias y aprendizajes y de construir conocimiento colectivo, apoyo mutuo, estrategias y orientaciones comunes para el territorio.

   a. Diseñar un plan de trabajo concreto para cada espacio, identificando los objetivos operativos a lograr, el contenido y la metodología de trabajo a desarrollar para alcanzarlos y el correspondiente cronograma, teniendo en cuenta siempre la visión conjunta de todos los espacios.

   b. Diseñar y dinamizar adecuadamente cada una de las sesiones de trabajo, específico de cada espacio, enfocándolas a resultados concretos y a la acción.

   c. Elaborar la documentación necesaria para el adecuado desarrollo y seguimiento de dichas sesiones: órdenes del día, materiales de trabajo, documentos de apoyo, actas...

   d. Sistematizar el trabajo realizado en los espacios, de cara a su adecuado seguimiento, a la extracción de aprendizajes y conclusiones, y a la identificación de aspectos de mejora.

2. Ofrecer **un asesoramiento individualizado** que responda a las necesidades de cada técnica de igualdad, en función del contexto específico de su ayuntamiento, y en el marco del trabajo colectivo que se desarrolla:

   a. Diseñar y desarrollar itinerarios específicos de apoyo y seguimiento a partir de la situación específica de cada técnica de igualdad, de cara a favorecer la acción y el aporte a la construcción de conocimiento y experiencia colectiva.

   b. Mantener un contacto fluido con el personal técnico de igualdad, ofreciendo asesoramiento concreto, de cara a reforzar el trabajo colectivo en los espacios de trabajo.

   c. Ofrecer apoyo al personal técnico de igualdad para que puedan participar en los procesos impulsados por el Órgano para la Igualdad.

   d. Sistematizar el trabajo de apoyo y asesoramiento realizado, de cara a su adecuado seguimiento, a la extracción de aprendizajes y a la identificación de aspectos de mejora, todo ello desde la perspectiva del aprendizaje colectivo y la mirada territorial.

FUNCIONES GENERALES:

Además de las funciones y tareas señaladas, se llevarán a cabo estas otras funciones de carácter general:

1. **Diseñar, planificar, dinamizar, sistematizar y evaluar** los procesos de trabajo derivados de las funciones de cada lote.

2. **Elaborar** los órdenes del día, preparar las presentaciones y toda la **documentación** complementaria necesaria para el buen desarrollo de las reuniones de trabajo y redactar las actas correspondientes, tanto de las sesiones con el personal técnico de los ayuntamientos, como con el propio Órgano para la Igualdad y, en su caso, con otros agentes implicados, a solicitud de dicho Órgano.

3. Elaborar **una memoria anual** que dé cuenta del trabajo realizado, extraiga conclusiones y aprendizajes e incorpore propuestas de mejora concretas.

4. Elaborar la documentación de fácil lectura y comprensión necesaria para que el Organo para la Igualdad pueda **compartir y difundir** el trabajo realizado.

5. **Asesorar al Órgano para la Igualdad** en el diseño de una hoja de ruta que ayude a desarrollar una línea estratégica de cara al futuro, a partir de las conclusiones y aprendizajes derivados de los procesos de trabajo desarrollados.

6. Realizar el **seguimiento y sistematización** de la estrategia para el impulso de la política local para la igualdad del territorio, realizando las actualizaciones necesarias del estado de situación de las políticas locales para la igualdad, de cara a la extracción de conclusiones y a la identificación de posibles mejoras y de nuevos aspectos a abordar.

7. **Coordinar y consensuar los proceso de trabajo**, y realizar un seguimiento conjunto y continuo del trabajo con el Órgano para la Igualdad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

8. Compartir información sobre el servicio gestionado y **colaborar en la articulación entre los servicios** que se ofrecen a los municipios guipuzcoanos, realizando las reuniones necesarias para ello, a solicitud del Organo par la Igualdad. La realización de las convocatorias y actas de estas reuniones será responsabilidad de la asistencia técnica que gestione el segundo lote.

9. Preparar la documentación y/o presentaciones requeridas por el Órgano para la Igualdad, de cara a poder **informar sobre el proceso de trabajo**, tanto dentro como fuera de la Diputación Foral.

10. Diseñar y gestionar espacios y/o encuentros con **representantes políticos** de todos los ayuntamientos para la coordinación y colaboración técnico-política entre la Diputación y los ayuntamientos.

11. Elaborar un **informe final** en ambas lenguas oficiales que recoja la experiencia (planteamiento, contenido, metodología, participantes, trabajo realizado, resultados, conclusiones, aprendizajes realizados y propuestas de mejora), así como la sistematización realizada en cada una de las funciones anteriores.

12. Elaborar **un informe final ejecutivo**, de carácter divulgativo, a fin de poder da a conocer de modo más general el trabajo realizado.

Edurne Aranbarri Andueza

Berdintasun teknikaria

Donostia, 2024ko uztailaren 17an